

hazi

LEA-ARTIBAIKO EKONOMIA ALDIZKARIA

2009ko EKAINA

15. ZK. • 5.urte



6-7

JON SARASUA

[LANKIko KIDEA]

Kooperatibagintza,
gauzak ezberdin egiteko
arrazoiak badaudelako.

Ekintzailearen eguna
ospatzeko hainbat
ekintza egin dira

Itsasoko energiaren olatua,
bihar-etziko aukera
bertoko enpresentzat

Kooperatiba
berrien sorrera

HAZI aldizkaria



ARGITARATZAILEA:
Azaro Fundazioa

LEGE GORDAILUA: BI-804-05

EGOITZA: Xemein Etorbidea 12,
48270 MARKINA-XEMEIN

TELEFONOA: 94 616 91 72
Faxa: 94 616 92 17

E-POSTA: azaro@leartik.com
leartibal@leartibal.com

TESTUAK: HITZA

ARGAZKIAK:

GARBINE GARAGARTZA

LORE BENGOETXEA

JON URBE

IMANOL OTEGI

DISEINUA ETA MAKETAZIOA: 11 BARRI

WEBGUNEAK:

www.azarofundazioa.com
www.leartibal.com

AURKIBIDEA

Editoriala	03
Enpresak sortzen	04 - 05
Ikuspegia	06 - 07
Bertoko enpresak ezagutzen	08 - 09
Behatokia	10 - 11
Leihatila	12

azaro
fundazioa

Leartibai
Garapen Agentzia



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

EDITORIALA

Noiz eta nola heldu gailurrera?

Udarekin batera dator HAZI berria, eta mendizaleek mendi irteera planifikatzen duten moduan, guk ere gure enpresa munduaren eboluzioa aurreikusitako beharra daukagu.

Enpresa berria sortzea abentura da, eta askotan, zalan-tzan egoten gara ibilbide hau egiteko gai garen edo ez. Bidea elkarrekin eginda, aldapak ez dira hain zailak izaten.

Mendira joan aurretik, nora joango garen, norekin, zer eramango dugun... planifikatu beharra dago. Era berean, enpresa mundura hurbiltzen garenean, modu desberdinak daude lan horri aurre egiteko, beti ere, ekintzailearen profila eta haren negozio ideia nolakoak diren kontuan izanda. Leartibai Garapen Agentziak eta Azaro Fundazioak, Lea-Artibai eskualdearen garapen sozio-ekonomikoa sustatu eta garatu nahirik, enpresa berriak sortu eta jada martxan dauden enpresen lehiakortasuna hobetzea du helburuetako bat. Horixe da gure makila.

Maiatza hilabete berezia izaten da ekintzaile direnentzat, Ekintzailearen eguna ospatzen da eta. Modu horretan, Azaro Fundazioak eta Leartibai Garapen Agentziak ekintzaileei zuzendutako hainbat ekimen jarri dituzte martxan: Sustatzaile Sareko kideek, merkatariak, ikasleak... guztiak izan dute protagonismoa hilabete honetan, eta eurei zuzendutako hainbat ekitaldi antolatu dira. Horren guztiaren berri *Enpresak sortzen* atalean ematen da.

Zerbaki honen gai nagusia «Gizarte Ekonomia» da. Hartara, *Ikuspegia* atalean, besteak beste, Kooperatiben baloreak hedatzen aritzen den Jon Sarasuarekin izan dugun solasaldiaren berri emango dizuegu.

Mendira joaten garenean ere, hainbat ibilbide izaten ditugu aukeratzeko. Gauza bera gertatzen da enpresa sortzen denean. Batzuek kooperatiba izaera hori ematea aukeratzten dute. Horren harira, *Bertoko enpresak ezagutzen* atalean, orain dela gutxi sortu den Oizpe Egoitza Kooperatibaren ibilbidea ezagutuko dugu, eta Lea-Artibaiko Kooperatiben Mahaia Elkartearen zeregina ere birgogoratuko dugu.

Baina ibilbidea ez da hemen bukatzen. Gaur egun gizartea, teknologia eta mundua nola aldatzen diren ikusirik, sormena eta berrikuntza derrigorrezko zerbait bezala ikusi behar dituzte ekintzaileak eta enpresariak. Enpresak ideia berriak sortzeko gai diren heinean, merkatuan lehiatzeko aukera berriak sortuko dituzte. Aukera hauetako bat energia berriztagarrietan ikus dezakegu: *Behatokia* atalean aztertzen dira sakonago itsas energiaren alorrean egon daitezkeen negozio aukerak.

Erronkak eta aukera berriak, beraz, hor daude. Aprobetxatzen jakin behar. Espero dugu HAZI hau gustu handiz irakurriko duzuela. Irailean ikusiko dugu elkar berriz ere!

BABESLEAK



EL FONDO SOCIAL EUROPEO
INVIERTE EN TU FUTURO



Produktu hau Valora proiektuaren baitan egin da, proiektu horren finantzaziorako funtsen %50 EGIFek eman du (POPV 2007-2013)

AZARO FUNDAZIOA ETA LEARTIBAI GARAPEN AGENTZIA

Ekintzailearen eguna

Ekimen zaletasuna bultzatzea eta pertsona ekintzaileen ahalegina, ekarpena eta kemena aitortzeko helburuarekin, urtero legez, EKINTZAILEAREN EGUNA ospatu dugu Lea-Artibain. Maiatzean hainbat ekitaldi egin dira enpresa sortu duten edo bide horretan ari diren ekintzaileei bideratuta. HAZIren zenbaki honetan ekintza horien berri emango dugu enpresa sortu berriei bideratuta dagoen atal honetan.



Enpresen estrategia komertzialak landu dituzte tailerretariko baten.

Kultura ekintzailea garatzea enplegurako europar estrategietako lau oinarrietatik bat da. Ekintzailetasunak lagundu egiten du enplegua sortzen eta ekonomia hazten; enpresa berriak sortzen eta enpresa sarearen lehiakortasuna hobetzen; hau da, lehiarako presioa areagotzen du. Europan horrela izanda, eskualdera hurbilduz, Esperanza 2013 proiektuari so, ekintzailetasuna bultzatzen da, bai balore moduan, baita enpresa berriak sortzeko helburuz ere.

Learribai Garapen Agentziak eta Azarok ekintzaileen ekimenak bultzatu eta indartu nahi dituzte, kultura ekintzailea eta enpresa berrien sorrera sustatuz. Eskualdean kultura ekintzailea zabalduz, enpresa berriak sortuz, gaur egungo beharrezanetara, ohituretara, ... egokitzen doa enpresa sarea eta horretan bide lagun izan nahi dugu. Urte guztian dihardugu horretan, baina maiatza berezia eta garrantzitsua izaten da, orduan ospatzen baita EKINTZAILEAREN EGUNA.

Aurten hainbat ekintza egin dira. Alde batetik enpresa proiektua garatzen ari direnei zuzenduta, elkarrekin enpresa sortu berri duten bi ekintzailearen esperientzia entzuteko aukera egon zen. DPH-Desarrollo de Proyectos Hidraulicos enpresa sortu berriko ekintzaileek euren esperientzia kontatu zuten: zein den euren enpresaren aktibitatea, zergatik egin zuten euren kontura negozioa jartzeko aukera eta, batez ere, entzuleentzat interesgarriena izan zena, euren ibilbidea; ideia izan eta enpresa sortu zuten arte, bidean aurkitutako oztopoak eta nola gainditu zituzten. Entzule guztiak enpresa sortzeko asmotan dauden ekintzaileak izanik, esperientziarekin ikasteko aukera aprobetxatu nahi izan zuten.

Sustatzaile Sarea osatzen duten enpresa sortu berrientzat, aldiz, bi tailer egin dira; alde batetik, enpresen alde ekonomikoa aztertzeko; eta bestetik, enpresen alde komertziala lantzeko. Beti ere, merkatuan finkatze aldera eta lehiakorrago izateko helburuarekin.

Sustatzaile Sarearen helburuetako bat harremanak sendotzea, elkarlana indartzea eta hortik sortzen diren sinergien balioa ahalik eta aprobetxagarriena izatea ere bada, eta hori lortzera ere bideratzen dira ekintza hauek, izan ere, aktibitatea bera eta enpresa osotasunean finkatzeko baliagarri izaten dira.

Lea-Artibai eskualdeko Ikastetxe Mahaiaren baitan, aurten ere hainbat ekintza jarri dira martxan eskualdeko DBH3. eta 4. mailako ikasleen artean. Ekimen honen helburua, eskualdeko gazteek inizatiba, ekintzailetasuna, talde lana... bezalako baloreak lantzea da. Urtero legez, gazteek eta ikastetxeek egin duten lana saritu nahi izan da, eurentzat ekitaldi espezifiko bat antolatu delarik.

Lea Artibai Ikastetxean ere ekintzailetasun kultura lantzen denez, urrats 1 programaren baitan gazteek egindako lanak sarituak izan dira.

Merkatarien ekintzailetasun grina eta euren sormena saritzeko egun bat ere egon da, baina ez hori bakarrik, Bilboko Merkataritza Ganberatik kalitatearen garrantzia ere azpimarratu nahi izan da.



Erakusleiho lehiaketak merkatarien sormena saritu du

Iazko arrakasta handia ikusita, II. Erakusleiho Lehiaketa antolatu du Leartibai Garapen Agentziak, parte hartu duten Merkatarien 2. gida ere kaleratu delarik. Erakusleihoen garrantzia azpimarratzeko helburuz eta sormena indartu nahian gorputzutako ekimena izan ohi da.

Aurten, sariak emateko orduan, epaimahaiak honako puntu hauek eduki ditu kontuan: sormena, argiztapena, modernotasuna eta berrikuntza, irudi komertziala eta produktua merkaturatzeko egokitasuna eta produktuaren aurkezpena.

SARIAK ▶

LORAK ESTHER [900 euro]
ESKUALDEKO SARIA

ARRIAGA ARTISAUTZA [400 euro]
SORMEN SARIA

Ondarroako TXO eta
Markina-Xemeingo JOSUNE DENDA
[200 euro]
PRODUKTUA MERKATURATZEKO
EGOKITASUNA ETA PRODUKTUAREN
AURKEZPEN SARIA

■ LEHIAKETAREN IRABAZLEARI ELKARRIZKETA ▶



«Beti nabil erakusleihoak ipintzeko ideiekin buruan»

ESTHER
OLABARRIA UGARTEBURU

[LORAK ESTHER. ONDARROA]

Noiz konturatu zinen enpresari izan nahi zenuela eta noiz hasi zinen beharrean?

Orain 25 urte hasi nintzen beharrean. Aurreko urtean pentsatu nuen enpresa ipintzea. Bururatzen zaidana momentuan bertan egitea pentsatzen duten horietakoa naiz.

Ekintzailea jaio edo egin egiten da zure ustez?

Nire ustez, jaio egin behar zara. Norberak eduki behar du ekintzailetasun hori. Pentsatu egin ahal duzula, eta bete-betean sartu.

Ekintzaileak zelako ezaugarriak eduki behar ditu?

Ekintzailetasun sen horri ez zaio loak hartzen utzi behar. Erosotasuna albo batera laga behar da.

Zer suposatzen du zuretzat eskualdeko erakusleiho lehiaketa saria moduko aitortzek?

Horixe bera, aitortza, enpresariok zer edo zer egiten dugunaren aitortza. Bestalde, erakusleihoak urte guztian ipintzen ditugu, gustatu egiten zaigulako eta jendea erakartzeko bidea dela ikusten dugulako. Beti nabil erakusleihoak ipintzeko ideiekin buruan. Orain hiru urte, denda lekutik aldatu genuen, eta leku berriarekin bete-betean sartuta gaude erakusleiho deigarriak ipintzeko zereginean. Lekuz aldatzea pentsatu genuenean, argi neukan erakusleiho handia eduki behar zuela, neuk nahi nuena egin ahal izateko aukera emango zidan erakusleihoa.

Ez da, beraz, puntualki egindako zer edo zer.



Ezkerretik eskumara, Arriaga artisautza, Josune, Lorak Esther eta Txo.



Lorak Esther-en erakusleihoa



«ESPIRITU KOOPERATIBISTAK ERALDATZEN JARRAITU BEHARRA DAUKA, gauzak beste era batera egiten jarraitu nahi badu»

JON SARASUA

[LANKIKO KIDEA]

Mondragon Unibertsitateko Lankidetzaren Ikertegian (Lanki) ari da lanean Jon Sarasua (Aretxabaleta, 1966) hamar urtez. Errealitate kooperatiboa eta autoeraketa diziplina aniztatik ikertzen dute. Sarasuaren egitekoen artean dago kooperatibagintzaren dimentsio soziala.

Gizarte ekonomiaz ari garenean, zertaz ari gara, zehazki?

Oso kontzeptu zabala da, definizio ezberdinak dituena. Ekonomia esperientzietan kapitala gehitzearen osagaitik aparte beste logika sozialen bat sartzen denean ari gara ekonomia sozialaz. Oso zaku zabala da, eta denak ez dauka interes bera. Badira gizarte ekonomian beste balore, beste praktika batzuen bidez unibertso txiki bat sortzen duten esperientzia eraldatzaileak, baina badira ohiko ekonomiatik oso hurbil daudenak ere.

Ze pisu daukate esperientzia eraldatzaile horiek Euskal Herrian?

Euskal Herriari satelitetik argazki bat egin eta bere ezaugarri bereziak zeintzuk diren begiratzu gero, hizkuntza eta nortasuna agertuko ziren moduan, gizarte ekonomiako edo guk autoeraketa deitzen dugun horretako foku

bat izatea ere egongo litzateke. Gizarte ekonomia mundu osoan dagoen errealitatea da, baina, beharbada, Euskal Herrian daukan dentsitatea eta pisua bereziak dira. Hor dauke, esaterako, Ikastolen mugimendua -gizarte ekonomiako eskolak dira-, edo Arrasateko kooperatibagintza edo euskalgintza...

Ba al dago gizarte ekonomiaren alorrean jarraitzeko moduko eredurik?

Ez dago leku konkreturik haiek egindakoa kopiatzeko. Hainbat foku daude, eta horietako bakoitzak ekarpen espezifikoak dauka. Zailtzarrik gabe, Euskal Herria horien artean dago. Hainbat jende dator kanpotik hemengo esperientzia ezagutzera eta ikastera. Beste hainbat foku ere badira, jakina. Esate-

den hainbat esperientzia ere. Eta European zehar ere badira mota horretako esperientziak.

Gizarte ekonomiako enpresek ze garrantzi dute gizartearentzat?

Munduko botere gune nagusiak bi polo dira. Alde batetik, kapitala eta haren antolaketa dago, dirua irabaztearen logikak mugiarazten duena. Hori da gaur egun mundua mugitzen duena, batez ere. Beste alde batetik, estatua eta bere logika burokratikoak dago. Bitasun hori oso motza gertatu daiteke hirugarren polo bat ez balu: gizartea. Gizartearen logikatik, pertsonen atxikimendu libretik antolatzen diren erakunde autoeratuak erazten dira. Horrek beste sare bat ematen dio gizarte horri, estatuaren eta kapitalaren logikatik haratago doana. Horrela esanda, teoriokegi dirudi, baina Euskal Herrira bagatuz, ikastolen mugimendua, euskalgintza edo kooperatibak, adibidez, beste bi horien hutsunea betetzeko sortu zirela ikusten dugu.

“ Autoeraketarena da XXI. mendeko debate interesgarrienetakoa ”

rako, Brasil, ekonomia solidarioa deitzen zaion horren ikuspuntutik, erreferentea da. Baita Hego Ameriketako herrialdeetan dau-

Testuinguru horretan, kooperatibek betezen duten lekua zein izango litzateke?

Kooperatiba, berez, forma juridikoa besterik ez da. Horren azpian, denetarik egon daite-

ke; interes askoko zein gutxiko esperientziak. Euskal Herrian dagoen kasurik interesgarriena, beharbada, Arrasateko esperientziaren inguruan dagoen kooperatiba multzoa da. Zentzu horretan, industriak duen mundu mailako esperientzia ezagunetakoa da. Euskal ekonomian leku bat betetzeaz gain, autoeraketaren ideiak industrian gauzatzen dituen esperientzia da.

Hasierako espiritu kooperatibista gaur egun mantentzen al da?

Bost hamarkadako ibilbidearen ondoren, beharriaren kooperatibagintza batetik, zer edo zelan, ongizatearen kooperatibagintzara pasa gara, eta horrek beste logika bat dauka. Espiritu kooperatibistaren eraldaketa eta epeltzea gertatu da. Baina epeltze hori oso erlatiboa da. Izan ere, kooperatibagintzaren barruan bada mezu berririk, bada tentsio utopikorik eta bada errealitate interesgarririk. Espiritua, galdu baino, eraldatu egin da. Eta aurrerantzean gehiago eraldatu beharko da, gauzak beste modu batera egiteko gogoari erantzuten jarraitu nahi bada.

Ibilbide horretan, zeintzuk izan dira kooperatibismoaren ajeak eta zeintzuk etorkizuneko erronkak?

Berez, kooperatibagintza arlo ekonomiko lehiakorraren eta helburu sozialen arteko oreka da. Oreka hori konplexua bezain polita izan daiteke, baina etengabe elikatu beharra dago. Badirudi azken hamarkadetan ekonomia alderako labaintzea egon dela. Hori izan daiteke aje askoren iturria. Aurrera begira, berriz, asko dago egiteko. Nagusien artean, XXI. mendeko zentzu sozialei erantzun beharra; ez baitute duela 50 urtekoekin zerikusirik. Baina oraindik ere gauzak ezberdin egiteko arrazoiak badira, eta horiei heldu eta horretan txertatzea izango da erronka. Poliki-poliki, zenbait kooperatiba ari dira murgiltzen.

Gizarte-ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutuak (EHU) kooperatibak tokiko garapenaren eragile garrantzitsuak direla ziurtatu zuen. Ados zaude?

Bistakoa da baietz. Baina orain galdera potoloagoak ditugu mahai gainean: Zer da garapena? Eta zer garapen nahi dugu? Konturatu gara ez digula balio XX. mende bukaerako garapen ikuskerak. Hori da orain zuzendu beharrekoa.



Zer esango zenioke aktibitate ekonomiko berria sortu nahi duen pertsona edo enpresari? Animatuko zenuke kooperatiba bat sortzera?

Bere barruan, bihotzean, ze motibazio duen galdetuko nioke, lehenik. Egun, kontsignek ez dute balio. Pertsona hori mugiarazten duena partekatzearen plazerra eta abentura komun baten parte hartzearen gogoia badira, bere aukera kooperatiba izan daitekeela uste dut. Izan ere, kooperatibek dezente tresna malguak eskaintzen dituzte Euskal Herrian. Baina garrantzitsuena ez da forma juridikoa, baizik eta zein den bultzatzen gaituen motorra; zein den aurrera eraman nahi dugun ekimen horren ikuspuntua.

Zeintzuk dira eredu juridiko honek dituen onurak?

Berdintasunezko oinarri batean, partekatutako proiektu baten jabe izatea, bere ondorio guztiekin. Gaur egun bide hori hautatuz gero, beste laguntza batzuk ere badira.

Ze laguntza mota?

Laguntza ekonomikoak baino gehiago, zergen tratamendu ezberdina jasotzen dute ko-

operatibek. Euren irabaziak gizartean banatzeko beharri atxikita, zergak ordaintzeko beste modu bat dute. Gero, gainera, badaude hainbat gune, besteak beste, Elkarlan eta Azaro Fundazioa, kooperatibak bultzatu aldera, aholkularitza zerbitzua eskaintzen dutenak, eta hasieran egin beharreko bidean laguntza eskaintzen dutenak.

Ze etorkizun aurreikusten diozu kooperatibismoari?

Ez dakit erantzuna bakarra den. Kooperatiba kontzeptua baino gehiago, autoeraketa kontzeptua da guri gehiago interesatzen zaiguna. Hau da, pertsonaren erabakitzeko ahalmenean oinarritzen diren erakundeak. Autoeraketarena da -kooperatibak autoeraketa ekonomikoaren alorrean daude- XXI. mendeko debate interesgarrietakoa. Iruditzen bazaigu estatua eta kapitalaz aparte jendearen eskuetan dauden gauzak egon daitezkeela eta egon behar dutela, autoeraketa etorkizuneko errealitatea da. Zentzu horretan, Euskal Herrian errealitate aski sendoa daukagu, baina egia da bertoko kooperatiba asko kontraesanetan erorita daudela. Etorkizunean ikusi egin behar kontraesan sare horretan zenbateraino lerratzen diren kapital enpresa tipiko izatera edota zenbateraino autoeraketak dituen potentzialak garatzera.

LEA-ARTIBAICO KOOPERATIBEN MAHAIA ELKARTEA

[LEA-ARTIBAI ESKUALDEA]

Eskualdeko kooperatibak, enpresa berri kooperatiboen sorreran bidelagun

Lea-Artibai eta Busturialdeko kooperatibek Lea-Artibaiko Kooperatiben Mahaia elkarte sortu dute.

Kooperatiba berriak sortzen laguntzea, hori da eratu berri den elkarte honen lan ardatza. Nahiz eta elkarte bera 2008ko abenduan sortu, badira jada 5 urte Kooperatiben Mahaia sortu zela eta Lea-Artibai eta Busturialdeko kooperatibak elkarlanean dihardute-la helburu horren inguruan.

Elkartean parte hartzen duten kooperatibak ondorengoak dira: **Cikautxo S.Coop.**, **Kide S.Coop.**, **Eika S.Coop.**, **Fagor Arrasate S.Coop.**, **Danobat S.Coop.**, **Burdinola S.Coop.**, **Euskadiko Kutxa S.Coop** eta **Maier S.Coop.**

Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomia Zuzendaritzak Azaro Fundazioaren bidez aurrera daraman egitasmo hau 2003. urtean jarri zen martxan. Urte hartan batu ziren eskualdeko kooperatibak, eta gaur egun arte gizarte ekonomiako zazpi enpresa berri sortu dira egitasmo horren bidez:

Durangoko Kafe Antzokia S.Coop
Mendilankor S.Coop
Leabai S.Coop
Oizpe S.Coop
Xemein Elektrik S.Coop
Malibi S.A.L
Duodac S.Coop.

Kooperatiben Mahaiko Elkarteak paper zuzena eta garrantzitsua du gizarte ekonomia-ko enpresa berrien sorreran, honako laguntzak eskaintzen dituelarik:

- Kooperatibekin harreman zuzena: iritzi gunea, kontraste gunea eta abar.
- Inbertsioetarako laguntza ekonomikoa.

Elkarteak ekintza berri bat jarri du martxan Azaro Fundazioaren laguntzarekin eta enpresa proiektuak kooperatiba eredura bideratzeko helburuarekin: «Enpresa proiektu kooperatiboen lehiaketa».



Lea-Artibaiko Kooperatiben Mahaia elkarteko kideen bilera.

ENPRESA PROIEKTU KOOPERATIBOEN LEHIAKETA

- PARTE-HARTZAILEAK: Lea-Artibai, Deba Barrena, Durangaldea eta Busturialdeko enpresa proiektu kooperatiboak aurkeztu daitezke.

- SARIAK:

- _ Proiektu onenari 3.000 euro
- _ Bigarrenari 1.500 euro

- IRIZPIDEAK: Saridunak aukeratzeko orduan erabiliko diren irizpideak honakoak dira: aurkeztutako proiektuaren bideragarritasuna, sortuko duen lanpostu kopurua, berrikuntza maila eta balore kooperatiboekin bat egitea.

- AURKEZPEN EPEA: Ekainaren 12an bukatu den arren, parte hartzeko interesa izanez gero, zuzendu Azaro Fundaziora, azaro@leartik.com helbide elektronikora idatziz eta helaraz iezaguzu zure proiektua.

- SARI BANAKETA: Uztailaren 3an izango da, Markina-Xemeingo Esperanza Eraikinean.

[HIRUGARREN ADINEKO PERTSONENTZAKO EGOITZA - MUNITIBAR]

OIZPE

Pertsonengan oinarritutako egitasmoa gorpuzten

Bizi guztian egoitzetan lan egin ondoren, sektore horretan kontzeptu berri bar sortu nahi zuten, eta hori izango da Oizpe.

Hamar urteko lanketaren ondoren, proiektua, ametsa, egia bihurtzeko zorian dago Rebeka Urriolabeitia eta Jabier Larrañagarentzat.

Hasiera baten, proiektua oso modu konkretuan jarriko da martxan. Oizperen lehen helburua hirugarren adineko jendearentzako egoitza izatea da, Lea-Artibaiko beharrizanei erantzuteko. Egoitzaren ikuskera tradizonala, ordea, aldatu egingo dute. Funtzionamendu eta filosofi mailan ukitu oso berezia edukiko du. Beharginen balioari garrantzia eman nahian, juridikoki kooperatiba modura eratzea erabaki zuten. Funtzionamendu zehatza dute buruan: pertsonen parte-hartzea ahalbidertzen duena. Helburuak guztien artean zehaztu, lan taldetan antolatuta eta guztien ekarpenekin asmoak gauzatzea dute asmo. Oizpen kide guztien iritziek dute tokia.

Proiektua sektore horretako zenbait laguni erakutsi zieten, errealtate bihurtzeko zeuzkan aukerak ikusteko, eta guztien baiezkoa jaso zuten. Azaro Fundazioaren laguntza ere izan zuten proiektua sakon lantzeko. Oizpe itxura hartzen hasita zegoen, eta erraza izango ez zela bazekiten arren, eurengan eta nahi zuten horrengan konfiantza itsua edukita, aurrera egin zuten.

Hirugarren adineko egoitza aurten jarri nahi dute martxan. Oizpe, ordea, hori baino proiektu zabalagoa da. Gerora, maila sozialeko beharrizanei erantzuteko zentroa izango da, gizarte mailan dauden beharrizanei erantzungo diona, eta formazioa ere zereginen artean hartuko dute.

Bertokoentzat eta bertokoekin

Oizpe Munitibarren egonik, hango udalak hasieratik egin du bat proiektuarekin. Izan ere, bertokoek bertokoentzat sortutako proiektu guztiz berezia da Oizpe.

Proiektuaren lehen pausoetan zortzi lagun baziren, gaur egun, 29 bazkide dira. Eta egoitza martxan denean, 56 lanpostu sortuko dituzte. Euren asmoa zera da: eskualdeko jendeari gustatzen zaion lana ahalik eta baldintza egokiengatik aukera ematea. Bertoko jendea bertoko jendearentzat lanean jarri nahi dute.

Oizpekoek, ordea, pertsona bereziak batu nahi dituzte proiektura: gizartearentzat lan egiteko prest dauden pertsonak. Kooperatiba izatera hartzeak zentzu hori zuen eurentzat. Kooperatibismoaren atzean, pertsonen konpromisoa baita ikusten dutena. Pertsona proiektuaren

parte sentitzea nahi dute. Enpresaren ikuspegia alde batera laga, irabazietan oinarritutako sistema baztertu eta arlo sozialari ahalik eta garrantzi handiena eman nahi diote. Egiteko argia dute: euren ardurapean dagoen pertsona ahalik eta hobekien egotea eta hura zain-tzen lan egiten dutenak ere modu berean sentitzea. Pertsonekin lan egiten dutenak ere pertsona baitira, eta gustura dagoen lan-gilea baino eraginkorragorik ez dago.

Era berean, egoitzan egongo direnen erotasuna ahalbidertzeko ahalegin guztiak egiten ari dira. Horrela, Deustuko Unibertsitatea eta Tekniker tarteko, Gaitek programaren laguntza izan dute. Haren bidez, sektore horretarako baliagarriak diren aurrerapen guztiak egoitzan probatu eta bertan biziko direnen eskura jarriko dituzte.

Kooperatiben laguntza

Oizpek, Azaro Fundazioaren bidez, kooperatiben mahaiarekin erlazio zuzena izan du. Argi zuten kooperatiba izan beharra zutela, eta gainera, ahalik eta bazkide gehien egitea zuten buruan. Eurek bakarrik aurrera egitea, ostera, ez zen batere erraza.

Kooperatiben Mahaian beharrezko zuten laguntza hori topatu dute, baina ez bakarrik maila ekonomikoan, laguntza moralala ere jaso dutela ziurtatzen dute. Izan ere, mahai horretan biltzen direnak hainbat kooperatibetako ordezkariak izanik, euren egitasmoa zuzentzeko eta bideratzeko aholkuak ematen dizkiete. Euren esperientziak, zentzuzko bidetik aurrera egiten laguntzen diete. Mahaiko kide izateko konpromisoa hartua dute, konpromisoan oinarritutako euren moduko beste edozein iniziatiba soziali laguntzeko erabaki sendoa hartua dute eta.



Jabier Larrañaga eta Rebeka Urriolabeitia

ESKUALDEKO KOOPERATIBETAN AURRERA ERAMANGO DEN HURRENGO EKINTZA

Eskualdeko hainbat kooperatibek **ESKUALDEKO EUSKARAREN EGUNA** ospatuko dute ekainaren 12an. Mendi irteera, bertso-bazkaria eta kooperatiben arteko jolasen bidez, gozatzeko tarte hartuko dute.

Negozio aukera berria: olatu energia

Olatuen energia: Undimotriz

Denok dakigu gaur egun erregai fosilenganako zelako dependentzia daukagun (petrolio, ika-tza, gas naturala eta abar). Arrazoi horregatik, administrazioak kutsadura gutxiago eragiten duten energia iturri berrietan inbertitzen eta indarrak jartzen ari dira, «mix energetiko» jasangarriagora heltzeko.

Itsasoko energiaz ariko gara orainoan. Askorentzat ezezaguna izan daiteke, baina bada, bai, ezaguna, eta badira hainbat mende erabiltzen dela. Izan ere, olatuen energia aprobetxatzeko lehenengo teknikak 1799an patentatu ziren, Frantzian.


Hala eta ere, XX. mendean eman zen jauzi teknologiko handia, petrolioaren krisiaren ostean, hain zuzen ere. Azken urteotan, olatuen mugimendutik energia ekoizten duten hainbat prototipo aurkeztu dira. Energia iturri jarraia eta agortezina da, eta, beraz, etorkizun oparoa dauka. Teknologia hau bost edo zortzi urte barru indar handia izango dela aurreikusten da.

Olatuen mugimenduari probetxua ateratzeko erak

Haizeak urari eragiten dion marruskaduraren eraginez sortzen dira olatuak. Lehenengo eta behin, itsas-kirruak sortzen dira, itsas-azalerak laua izateari uzten dio, haizearekiko marruskadura nabarmenagoa da eta olatuak hazi egiten dira. Haizea zenbat eta handiagoa izan, olatuak orduan eta handiagoak izango dira.

Airearen dentsitatea urarena baino askoz txikiagoa denez, itsas-azalean partikulak askatasun handiagoa daukate translaziorako. Arrazoi horregatik, olatuek itsas-azalean kilometroak eta kilometroak hedatzeko ahalmena daukate. Olatuek energia metatzen dute, energia hartu eta garraiatzen dute, ia galerarik barik, olatuak apurtzen direnera arte, hau da, kostaraino.

Hainbat sistema daude olatuek daramaten energia zinetiko eta potentziala energia elektrikoan bihurtzeko. Jarraian, garrantzitsuenak zerrendatzen dira:



1. Ur oszilatzaile zutabea (OWC):

Itsasmailaren azpitik erdi murgilduta eta zabalik dagoen kamera baten oszilatzen du. Olatua sartzen denean, kamerako aireari presioa eragiten dio, eta gorago dagoen zulo batetik ateratzen da. Turbina batek mugitzen du zulo hori, eta energia elektrikoa eragiten du. Olatuak atzera egiten duenean, berriro airea xurgatzen du, eta energia ekoizten jarraitzen du. Beharbada, teknologiarik helduena da. Teknologia horren adibide da «Mutrikuko OWC eraikina».



2. Kaptazio puntuala duen sistema:

Alatean egon daiteke, edo murgilduta, olatuaren kulunkak mugimendu bertikala eragiten dio buiari, eta energia bihurtzen da sistema hidrauliko edo mekanikoaren bidez. «OPT buiak» kaptazio sistema hau erabiltzen du.




3. Atenuadorea duen sistema:

Erdi murgilduta eta euren artean banden bidez lotzen diren flotatzaile zilindrikoak dira. Sekzioen arteko mugimendu erlatiboa generatzaile elektrikoek mugitzen dituzten motore hidraulikoen bidez presio altuan fluidoak ponpatzeko erabiltzen da. «Pelamis» bihurtzeko sistemaren adibide da.



4. Gainez egiten duten olatuen sistema:

Maila jakin bat gainditzen duten olatuetako ura presa baten harrapatzen da, eta ura husteko prozesua erabilita, energia elektrikoa lortzen da. «Wave Dragon» gailuak sistema hori erabiltzen du.



Olatuen urteroko potentziaren banaketa, KW/m-etan neurtuta

Euskal Herria, erreferentzia mundu mailan.

Euskal Herriak, 150 kilometrotako itsasertzarekin, **undimotriz** potentzialik handienetakoa dauka mundu mailan. Gaur egungo teknologia-rekin, urtero **2.000 Gwh** sor daitezke, hau da, gutxi gorabehera, urteroko eskari elektrikoaren %10.

Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) zera lortu nahi du: **Euskal Herria mundu mailan** potentzia bihurtzea **undimotriz** teknologian. Hartara, **2010 bitartean, 15 milioi euro** inbertitu nahi dira olatuen energiaren aprobetxamendurako instalakuntzetan.

Horren adibide da Mutrikuko dike berrian ipinitako ur oszilatazailearen zutabea. Munduan aintzindaria den instalazio honek 296 KW-ko potentzia edukiko du, eta urtero 600.000 Kwh sortuko ditu. Urtero atmosferara 600 tona CO² igortzea ekidituko du, adibidez, basoko 80 hektareak eragingo luketen efektu garbikarri bera.

Administrazioak teknologia honi eman dion bultzadaren barruan dago BIMEP —Biscay Marine Energy Plataform —, olatuen energiaren ikerketa plataformarik garatuena Europa mailan, 2008ko azaroan

Armintzan, Bizkaian, zabaldua. Helburua zera da: hainbat teknologia eta prototipoentzako banku proba modura erabiltzea.

2009ko apirilaren 2an, BEC-ean «Itsasoko Energiari buruzko Nazioarteko Jardunaldia» egin zen. Munduko hainbat aditu batu ziren itsasoko energien egoeraren gainean berba egiteko.

Ondorio nabarmenenak hauek izan ziren: offshore teknologia izatean (Itsaso barruan), ekipoen instalazioa, mantenimendua eta sare elektrikoarekiko lotura oso garestia da. Ekipoek korrosio eta garbiketa arazoak dituzte, eta energia sarera eramateko erabiltzen diren kableak oso gaitzak dira instalatzen. Sektore horietan negozio aukerak sor daitezke Lea-Artibaiko enpresa ehuna sortzeari begira. Arrazoi horregatik, **Lea-Artibaiko itsasoko industria laguntzailearentzat** aukera ona da, bideak zabaltzen dizkielako (produktu berrien garapena, merkatuak). Zentzu horretan, **Azaro Fundazioak**, Energia Klusterreko kide den heinean, aktiboki parte hartzen du enpresei energia berriztagarrien ildotik sor dakizkien negozio aukeren gainean informatzen.

LEIHATILA

DIRU LAGUNTZAK ▶

HOBEBI DIGITALA

Xedea: enpresetan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia erabiliz digitalizazioa bultzatzea.
Epea: 2009/10/15

MIKROENPRESA DIGITALA

Xedea: ordenagailuak erostea, Internetera alta ematea eta hasierako 6 hilabeteko kuotak eta birus-kontrako softwarea diruz laguntzen ditu.
Epea: 2009/12/31

BERRIKUNTZA AGENDAK

Xedea: berrikuntza proiektuen agenda definitu, garatu eta berrikusteko kontsultorea kontratatzearen laguntzak.
Epea: 2009/12/31

EKIPAMENDU PRODUKTIBOETAN MODERNIZAZIOA

Xedea: Industri makina zaharra txartar bihurtu eta berria erostean inbertsionarako laguntza.
Epea: 2009/09/30

KRISIALDIAK JOTAKO ENPRESAK BERREGITURATU ETA BULTZATZEKO LAGUNTZAK

Xedea: krisialdiak jotako enpresak berregituratu eta bultzatzeko laguntzak. Laguntza horiek gerora itzuli beharreko aurrerakin modura emango dira.
Epea: 2009/07/31

AFI

Xedea: inbertsioak egiteko finantza laguntzak ematea.
Epea: 2009/10/15

GAUZATU TURISMO

Xedea: turismo sektoreko enpresetan inbertsioak egin eta enpresa berriak sortzeko laguntza.
Epea: 2009/07/30

MET

Xedea: turismo sektoreko enpresetan oinarriko ekipamenduak modernizatzeko laguntzak
Epea: 2009/07/31

MEC

Xedea: merkataritza sektoreko enpresetan ekipamenduak modernizatzeko laguntzak
Epea: 2009/09/04

FINANTZA EGOKITZAPENA ETE ETA AUTONOMOENTZAT

Xedea: bankuaren finantzaketa lortzeko laguntza, zirkulatuzailearen beharriak epe laburreko zorra berritu eta epe laburreko zorra epe ertain eta luzerako zor gisa egokitzeko laguntzak. Interes tasaren baldintzak aldekoak izanik.
Epea: aurrekontua agortu arte

ICO LINEAK

Xedea: interes tasaren baldintzak aldekoak eta amortizazio epe luzeetako maileguak lortzea.
Epea: kreditua agortu arte

Esperanza 2013 proiektu estrategikoa

Esperanza 2013 proiektu estrategikoak jada bi urte pasatxoko ibilbidea dauka. Lehen faseko urte hauetan, eskualdearen garapenari begirako helburu estrategikoak definitzeaz gain, martxan jartzea izan da erronka nagusia, eta lan talde dinamikoak horretara bideratu dira. Bestalde, Esperanza 2013 eraikin berrirako finantzazioa ere lortu da, etorkizunean sortuko diren aktibitate ekonomiko berrien kokagune hori eta eskualdeko ikerketa eta garapen gune hori eraikitzen hasi ahal izateko.

Aurtengo erronka nagusia, helburu estrategikoak lortzearen alde lan egiteaz gain, «ekintzailetasun eta berrikuntza gune» berri horren eraikinen lanen obrekin hastea da. Momentu honetan, lehen eremu fisiko horretan zeuden eraikin zaharrak bota dira, garbiketa lanak egin dira eta Esperanza 2013 eraikin berriaren obrak hasi dira.



Informazio gehiagorako DEITU:

94 6169172
94 6169088